

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

109/2020 Foru Agindua, ekainaren 1ekoa, hasierako onespena ematen diona Arraia-Maeztuko udalerriko 3 poligonoko 194E lurzatian, lurzoru urbanizaezinean, haizea neurtzeko Azazeta-2 estazio meteorologikoa instalatzeko/desinstalatzeko proiektuaren interes publikoaren adierazpeneko espedienteari

Aixeindar SA sozietateak, zeina Eólicas de Euskadi SAK (Grupo Iberdrola) eta Cadem SAK eratzen baitute –azken hori Eusko Jaurlaritzaren Energiaren Euskal Erakundearena da (EVE taldea)–, Arraia-Maeztuko Udalari obratarako udal lizentzia eskatu dio Azazeta-2 estazio meteorologikoa instalatzeko/desinstalatzeko proiekturako, xedea baita haizea neurtzea Azazeta herriarena den aurkintza batean. Horretarako, 82,5 metro altuko neurketa dorre bat muntatu behar da, 3 poligonoko 194E lurzatian, udalerriko lurzoru urbanizaezinean.

Arraia-Maeztuko Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientean dago proiektu teknikoaren kopia bat, baita udal arkitektoak eginiko txostena ere, zeinetan adierazten baita dorreak kokaleku izango duen lurzatiaren lurzoru urbanizaezin sailkatutako eta Zona 4 Mendiko Larreen Babes Zona kalifikatutako lursailan dagoela, eta aplikatzekoa da Mendien Foru Arauan onura publikoko mendietarako jasoriko arauketa, bai eta udalerrian indarrean dauden arau subsidiarioetako 201. artikulua ere, zona bakoitzean baimendutako erabilera eta jardueri dagokienez. Manu horrek hau ezartzen du: “B motako zerbitzu ez-linealen azpiegitura teknikoak. Baimena ematen da lurzoru urbanizaezineko zona guztietan dorreak, antenak eta irrati, telebista eta satellite bidezko komunikazio estazio igorgailu-hargailuak instalatzeko... lurzoru urbanizaezinerako, landa gunean kokatu behar diren onura publikoko edo gizarte intereseko eraikin eta instalazioak baimendu ahalko dira...”

Halaber, udal txostenak jasotzen du ezen Nekazaritza Sailean izapidetzen ari dela Mendien Foru Arauan jasoriko baimena, Aixeindar sozietateak lursaila bi urtez okupatu dezan dorrea instalatzen denetik aurrera.

Bidalitako dokumentazioarekin batera, Azazetako Administrazio Batzarrak eta Aixeindar SA erakundeak hitzartutako 2019ko abenduaren 19ko kontratua ere bidali da. Agiri horretan, administrazio batzarrak, zeina baita 3 poligonoko 194 E lurzatiaren jabea –onura publikoko mendien katalogoan 296 “Lekutxa” izenarekin jasotzen da–, baimena ematen dio Aixeindar SA sozietateari lursailak okupatu ditzan haizea neurtzeko dorrea instalatzeko.

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta Sailaren Egitura Organiko eta Funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bat etorri Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak art.28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, “lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legeriak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaraturako zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hoguei egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren”

Bigarrena. Aztertutako kasuan, hasierako onespina izapide bat baino ez da, hots, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du xedatzen, inondik inora, behin betiko onespenerako hartu beharreko erabakirik.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hasierako onspena ematea Arraia-Maeztuko udalerriko 3 poligonoko 194E lurzatian, lurzoru urbanizaezinean, 82,5 metro altuko neurketa dorre bat muntatzearen bidez haizea neurtzeko Azazeta-2 estazio meteorologikoa instalatzeko/desinstalatzeko proiektuaren interes publikoaren adierazpenari buruzko espedienteari. Proiektu hori Aixear SA sozieta-teak sustatu du, zeina Eólicas de Euskadi SAK (Grupo Iberdrola) eta Cadem SAK (EVE taldea) eratzen baitute.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean jartzea hogei egunez, foru agindu hau ALHAOn argi-taraten denetik aurrera. Aldi horretan nahi duen orok nahi dituen alegazio guztiak aurkeztu ahal izango ditu. Interesdunek Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuan azter dezakete espedientea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 1a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO